

Ezpalak

JON TORNER

“Asiako fikzioak” Getxophoton



URRIAREN 11RA ARTE egongo da zabalik Getxophoto Nazioarteko Argazki Jaialdiaren 3. edizioa. *Asiako fikzioak* lelopean, Japon, Txina, Taiwan edota Hego Koreako hogeitarkuzkilariren obrak izango dira arguzgai Getxoko areto eta kaleetan. Horien artean daude, besteak beste, Yasumasa Morimura, Tomoko Sawada, Wang Qingsong, Yao Lu, Jiang Zhi, Myoung Ho Lee eta Shen Chao-Liang. Erakusketez gain, tailerrak, proiektzioak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak ere izango dira. Egitarau osoa <http://getxophoto.com> webgunean kontsulta dezakezue.

Magialdia Gasteizen

HILAREN 24RA BITARTEAN magiaren Europako hiriburu bilakatuko da Gasteiz. Berrikuntzekin datorren Magialdia jaialdiak hainbat herrialdeetako dozenaka artista bilduko ditu. Berrikuntzen artean, besteak beste, ikaste-txeetan eskainiko diren saioak eta haurrak magiara hurbiltzeko hastapen tailerra izango dira. Magialdiaren XXI. edizioari buruzko informazio guztia (egitaraua, parte hartuko duten artistak...) www.magialdia.org webgunean eskura daiteke.

Txertoa argitaletxeak bederatzi eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzendutako bost biografia plazaratu ditu, *Nor da?* bildumaren baitan. Martin Ansok eta Miren Arratibelek euskaratu dituzte libururak: *Marco Polo abenturazalea*, *Mozart musikari txiki handia*, *Darwin bidaiaria*, *Clara Campoamor emakumeen eskubideen defentsan* eta *Lorca eta haren xarma*.

Agin Rezolak irabazi du Bertsolari Gazteen Lizardi Saria. Zarauzko Zinema Pilotalekuan jokaturako finalean Aitor Urbietta, Miren Amuriza, Unai Gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Arkaitz Oiertzabal Xamoa ere aritu ziren bertsoetan. Saioa amaitu aurretik, Iñigo Legorburuk Basarri Bertsopaper Saria jaso zuen.

Dionisio Barandiaran enpresari eta arte sustatzailearen biografia aurkeztu zuen pasa den astean haren familiak, *Azarolako Dunixi* izenburupean. Ataunen jaioa, Donostiako Barandiaran Galeriaren sortzailea izan zen, eta Egia auzoan Dunixi zinema aretoa zabaldu zuen.

Joan Mari Irigoienek Orbetarren trilogiako bigarren liburua plazaratu du: *Haragiaren gauak eta egunak* (Elkar). *Bestea da mundua* eleberriri ematen dio segida, eta Regina eta Nazarioren zazpi seme-alabak dira protagonistak. Istorioa XX. mende hasieran dago kokatuta.

● **Barricada taldeko Alfredok Nabarra aldizkarian** [*La tierra está sorda* diskoa argitaratzean, Barricadak Warner-ekin sinatuta duen kontratua amaituko da]: «Argi dago diskoetxeak hondoratzen ari direla, sistema hori pikutara doala eta autogestioaren bidetik beste aukera batzuk aztertu behar ditugula, baina oraindik ez dugu halako erabakirik hartu. Etorkizuneko erronka izanen da, baina unetxo hau disfrutatu nahi dugu lehenbizi».

● **Bizidunen eta Interneten artean zer nolako paretotasunak aurki daitezkeen azaldu du Marko Txopitea aholkulari informatikoak *Gaur 8* aldizkarian. Bere artikulutik hartu dugu pasarte hau:** «Ordenagailuetako birusek onddo, bakterio eta birus biologiko askok erakusten dituzten ezaugarri berdinak dituzte: medioan zehar mugitzen dira, hazi egiten dira eta ugaltzen dira. Birus informatiko asko ezkutatu egiten dira, eraso egiten dute eta, ugalketa prozesuan beraien

burua klonatu beharrean, semeek ezaugarri desberdinak izatea lortzen dute. Hala ere, inork ez du serio pentsatzen gizakiok artifizialki diseinatutako sistema hauek bizidunak bezala sailkatzerik dagoenik. Nanoteknologiari esker edo, gizakiok hazi eta ugaltzen diren birus biologikoak artifizialki diseinatzen hasiko bagina, bizidunak bezala sailkatuko al genituzke?».

● **Oscar Candendo Zabala organistak Eusko-news&Media agerkari elektronikoa:** «Organoak normalean auditorioetan ipintzen dira. Euskaldunan, esaterako, organo handi bat dago. Kursoalean ez dago eta hori, egia esan, oztopo handi bat da; baina, auskalo, agian egunen batean eraiki ahal izango da. Izan ere, erreperitorio sinfoniko handia dago organoarekin, eta orkestra on bat bai, baina auditorioan organorik ez badago, ordezko elektronikoa jo behar izaten da. Eta hori onartezina da beste musika-tresna batzuetan».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php